

ParKaro

29A

ZERGARIA

ORIOKO ALDIZKARIA

1899-KO UZTALEKOA

- Erreportaje
Aita Lertxundi

Elkarrizketa
Pili Olariaga eta
Laura G. de Txabarri

Kale Nagusia

berrikuntza-lanak hasi di

Txiste eta asmakizunen txokoa

ASMAKIZUNAK:

✓ Behin batean hegaziekin lana egiten zuen gizon bat kalera zetorren asto gainean arrautz mordo bat zuela. Astoak lau hanka izan arren, horietako bat oker jarri eta hankaz gora erori zen. Orduan gainean zemakizkin arrautz denak hausia zitzaitzien eta gizon hau haiei begira zegoela, pasian zebilen beste gizon batek horrela esan zion: "oker haundia gizon, zenbat arrautz zemakezkizun? Eta honela erantzun zion:

Binaka kontatu eta bat sobratu zait
 Hirunaka kontatu eta bat sobratu zait
 Launaka kontatu eta bat sobratu zait
 Bostnaka kontatu eta bat sobratu zait
 Seinaka kontatu eta bat sobratu zait
 Zazpinaka kontatu eta justu-justu.
 Zenbat arrautz zemakizkin?

✓ Auto bat ikaragarrizko martxan dihoa eta errebueta ematen du itxi-itxia eskubitara.

Zein erruedak ematen dizkio bueltarik gutxiena?

(Erantzunak hurrengo zenbakian)

Aurreko aleko erantzunak: (Zuloa, urtea, botila)

TXISTEA:

Iparraldeko senar emazteak eta gainera baserritarrok. Udazkena zan eta pentsatu zuten egun batzutan bakazioak egitea eta gainera Hego Euskal Herria ikusi behar zutela lasai-lasai. Irten dira gure paraje honetara, oso eguraldi ederrarekin eta baziak dute Zarautz aldean eta segi dute aurrera. Arrona aldean ikusi dute kamio ondoan oso arto saila haundia eta ederra, eta arto tartean bost emakume babarruna biltzen. Gelditu dira soro ondoan emakume haien zer ari ote diran begira. Badakizue hemen arto babarrunak nahastun egiten dala, baina Iparraldean ez da horrela egiten. Arto sailan artoa bakarrik egiten da eta babarruna berdin. Gainera hango babarrunak ez du makiilarik behar babarrun motza da eta, gainera uzten dute soroan ondo heldu arte eta orduan ateratzen dute bere zain eta guzi eta gero ganbaran zintzilik jartzen dute ondo sekatzeko.

Emakume horiek inguratu zitzaitzien eta besteak beren kotxean tente jaririk, kotxea deskapotablea baitzuten, honela diote:

- Arratsaldeon, zer ari ote zeraten begira gaude.
- Gu, helduta dauden babarrunak biltzen.
- Kontxo, kontxo, gure parajearen ondo heldu arte uzten ditugu eta gero erabat babarrun danak ipurditik ateratzen ditugu.
- Hemen, jan eta gero.

Asmakizunak eta txistea Jose Iparragirrek bidali dizkigu, hurrengo aleetan argitaratuko ditugun beste batzuekin batera. Mila esker gurekin kolaboratzeagatik.



Gure
herriko
garagardoa

ORIO
Auto Eskola
Telefona: 83 57 19

AXUN
JANARIAK
Telefona: 83 59 02

iTZiAR
Kirolak
83 31 03

IPARRAGIRRE
AUTOZERBITZUA
Oa kalea, 5 Tfnoa: 83 17 15

KarKara

aldizkaria

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua
SS 346/90

ISSN
1132-1105

Tirada
800 ale

Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena

Manu Etxeberria

Miren Etxeberria

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Iñaki Iturain

Nere Manterola

Idoia San Sebastian

Jabier Zabaleta

Publizitate-arduradunak

Miren Etxeberria

Ana Iturain

Kolaboratzaileak

Rafa G. de Txabarri

Patxi Oliden

Amaia Usandizaga

D. Andres Garmendia

Azken orrialdeko marrazkia

Daniel Bastos

Argazkiak

Ana G. de Txabarri

Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- 4 Gutunak
5 Herrian galdezka
Martxoak 8, emakumearen eguna
6 Herriko kontuak
10 Kirolak
14 Erreportajea
Aita Lertxundi, frantziskotar, diplomatiko eta jakintsu oriotarra
16 Iritzia
Erabateko intsumisioa Espanari Ibon Urbietar
17 Elkarrizketa
Laura G. de Txabarri eta Pili Olariaga. "Emakumeok eta gazteok osatzen dugu langabetuen talderik kaltetuena"
20 Denetik piska bat
25 Kolaborazioa
Kale nagusiko berrikuntza-lanak
26 Azkena

1994eko publizitate-prezioak

Modulo bat	1.500 PTA
Bi modulo	3.000 PTA
Hiru modulo	4.500 PTA
Lau modulo	6.000 PTA
Sei modulo	9.000 PTA
Orrialde erdia	13.500 PTA
Orrialde osca	27.000 PTA

Prezio hauetako zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gaineran.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

Pelotariak baztertuta frontoian

Eman dezagun bazoaztela hiru lagun herriko frontoira pelotan jokatzeko asmoan eta mutil koskorrafi fiabolean topatzen dituzuela eta pelotan jokatu ezinik geratzen zera.

Eman dezagun astebetara bazoaztela berriz frontoira, oraingoan lau lagun, badezpada ere ordua aldez aurretik hartuta, eta neskatalik topatzen dituzuela eskubaloian jokatzen, guraso bat etortzen zaizula esanaz ahaztu egin zitzaiola ordua eskatzea eta barkatzeko, baina haien han segitzen dute partidu "amistoso" bat jokatzen, eta zuek pelotan jokatu ezinik, berriz ere.

Eman dezagun C.R.O.ko pelota salleko ordezkari gisa Gipuzkoako Txapelketa jokatzen ari den herriko pelotari batek ondorengo hau kontatzen dizula: "Ez zegok apena ordu librerik frontoian, danak hara joaten dituk, saskibaloia, eskubaloia, futbito, beishbol, danak, azkenean lortu diagu ordu libre bat, futbitokoek hartuta zeukan, eta joaten ez ziralako, baina lehengo astean agertu egin hituan eta komerik! Gainera haien ez ditek frontoia ordaintzen, guri berriz, kobratu egiten zigatek".

Eman dezagun pelotari bat, guzti honekin aspertuta eta komponbide bila, herriko Udaletxera dihoala; han kontzejal ardura dundarekin hitz egiten duela, eta honek zera esaten diola: "Frontoia ez dek lau katuk pelotan jokatuz izerdi pixkat botatzeko, horiek azkenak dituk".

Ba, hori dana Orion gertatu da, horregatik diot: "Pelotariak baztertuta frontoian".

Orion frontoi bakarra daukagu. Oraingo gaztetxo askok nahiago badute saski-baloian, futbitoan, eta jokatu, eskubide osoa dute, eta bere lekua behar dute, eta zoritzarrean oraindik ez gera gauza izan polikiroldegia bat lortzeko, askok haueskundeen aurretik hori agintzen badute ere. Baina bitartean

Zaragueta eskolan badago leku bat kirol guzti horiek praktikatzeko, eta ez dute ulertzten zergatik ez dan erabiltzen.

Ez naiz esaten ari beste kirol hauetan ez dutela lekurik herriko frontoian, ez. Esaten ari naizena da herrian ditugun instalakuntzak era egokiagoan erabili behar direla, eta horretarako onena hitzegitea da.

Bitartean euskaldunon kirol nazionala, pelota, gure herrian sekula egon dan bajuena dago. Inor gutxik jokatu nahi du pelotan, hau asko raketarekin joaten dira frontoira, eskuz ez du inork jokatzen, pelotan egitera dihoazenak askotan jokatu ezinik gelditzen dira.

Ez ote gera gauza pelotazaleok egoera honen aurrean erreakzionatzeko? Asegarcé ekarri beharko ote degu Oriora pelota berriz ere zuspertzeko?

Nik, konponbidearen bila, lehen aipatutako negoziazioaz gain, beste bi proposamen egin nahi ditut hemendik. Bata udal gizon-emkumei: ardura daitezela pitin bat arazo honetaz ere; bestea dagokionari: jar dezala txartel bat frontoian, adieraziz, aldez aurretik eskatutako orduetik kanpo, frontoian pelotan jokatzen dihoanak daukala lehentasuna.

INAKI ITURAIN

Udal eta euskara

Lotsagarria da Orioko udaletxearen jokabidea; hain herri euskaldunean etxera mezuak erdera hutsean bidaltzen ditu udalak eta euskaraz jaso nahi baditu zu zerorrek joan behar mesedezez itzultzeko eskatzen. Orio bezalako herri euskaldunean gutxiengutxienez udaletxeak euskaraz bidali beharko lituzke mezuak, eta itzulpena erantsi nahi bada.

Beste gauzazio bat, gazteok euskaraz egin behar dugu, bai, baina baita helduek ere.

Azken gauza, norbaitek bere burua minduta sentitu badu "aguanta!", merezi du eta. Ni ere halaxe sentitu naiz.

IMANOL MANTEROLA

Hondartzako ordenamendu berria

Kostako Zuzendaritzak Estatuaren jabetza publikoko zonak nahi baldin baditu (zenbat eta gehiago, hobe), eskubide osoa du horretarako, baina Udalak herriaren lurra defenditu behar ditu.

Oriolarrok Orioren ikuspuntu defenditu behar dugu. Zenbat eta konpetentzia gehiago izan, orduan eta hobe, MOPU oso urrutti dago eta.

Deslindea ertzetik egin behar da eta ez barrualdetik, zeren eta deslindea barrualdetik eginez gero, zona hori itsas-lurreko domeinua bihurtzen baita (dominio marítimo-terrestre); beraz, Estatuarena izatera pasatzen da eta Udalak galdu egiten du horren jabetza.

Larria iruditzen zaidana honakoa da: barraren proiektu berriarekin hondartzaz hazi egingo baldin bada (113, esaten diutenez), nik uste absurdoa dela deslindea atzeratzea. Horrekin zera lortzen da: 5.250 m². Estatuaren lur publikoa izatera pasatzen dira eta lur-zati handi bat, berriz, (25.000 m²) oso afektatua geratzen da eta Udalak Estatuaren baimena beharko du edozein aktuazio egiteko.

Kirol portuari buruz. Dirudunek beren yateak gordetzeko leku bat? Ez al da hori herria eta herritarak dirudunen zerbitzura jartzea? Euskal Herrian zerbitzu-sektorea indartu behar dela esaten da. Nik nahiago ditut arrantzuntziak yateak baino. Fabrika hondartzaz baino. Industriarik gabe ez dago etorkizunek eta zerbitzuak industriaren ondorioz sortzen dira. Fabrikarik gabe ez dago lanposturik.

Bestalde, kirol portua egin nahi izanda ere, badago beste aukera bat, merendero eta plaiak txikia galdu beharrik gabe; Patxi Sarasuak planteatutakoak. Aukera horrek askoz bentaja gehiago du eta, gainera, ez du hondartzaz inguruko zona hori hipotekatzen.



TALAI

Martxoak 8, emakumearen eguna

Martxoaren 8an emakumearen eguna dugu; zergatik ospatzen da emakumearen eguna eta ez gizonarena? Herritarrengana hurbildu gara, beraiek zer moduz ikusten duten egun hori, zer nolako egoera iruditzen zaien gaur egungo emakumeena, heziketa berdina jasotzen ote duten neska eta mutilek, bai etxeen, bai ikastolan...



SARA PEÑA
18 urte

Nik ez det egun hau ospatzen. Egun seinalatu bat jartzea ez zait ondo iruditzen, urte guztian oroitu behar da emakumeetaz. Heziketa berbera ematen zaie nire ustez neska eta mutilei.



JOSE MARI GURRUTXAGA
43 urte

Emakumearen egoera aldatzen ari da, baina oraindik autterapausu haundiak eman behar dira. Ondo iruditzen zait egun hori ospatzea, baina gauza batzuk urte guztian erreinbindikatu behardira.

M. KARMEN URDANGARIN
34 urte

Nik ez det ospatzen emakumearen eguna, baina ondo iruditzen zait martxoaren 8an emakumeek beren eguna ospatzea. Mutilak eta neskak berdin hezitzen direla uste det, bai ikastolan eta bai etxeen, gurean behintzat,



INIGO URANGA
18 urte

Neri ondo iruditzen zait emakumeen eguna ospatzea, ze orain arte emakumeek gizonak baino okeerrago egon dira, baina, nahiz eta egun horretan beraiei entzun, urte guztian izan beharko luke horrela.



**Bertan egindako
opil eta ogiak**

ORIOGI
OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Tfnoa: 83 01 89

LIZASO
ERLOJU eta
BITXI DENDA
Eala, 3
Tfnoa: 83 01 90



IB GELATO
Etxeko helatuak
eta kruasanak
San Nikolas 17 TFNOA 131747

**URANGA
BURDINDEGIA**
EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236



XVIII. mendeko freskoak Julianitoren etxearen

Hiru belauntzi eta bi figura geometriko, XVIII. mendeko izan daitezkeenak, aurkitu zituzten San Nikolas kaleko 9. zenbakian konponketa lanetan ari zirenean.

Aurkitu zituztenean, teknikariek argazkiak atera zizkieten freskoei eta ikustea dagoenez belauntziak gorri margotuta daude, eta ingurua urdin kolorekoa zen pintatu zen garaian. Untzien ondoan, egurrezko kutxetan ikus-ten diren eguzkilore edo antzeko margo geometrikoak daude.

1991n etxe hau erre egin zen eta jabeek, Arruabarrena familia, konponketa lanak segituan hastea pentsatu zuten, baina baimena hiru urtez atzeratu zen, fatxadak balio historiko artistikoa zuelako.

Lau fresko hauek, lehenengo pisuko gela bateko paretan aurkitu zituzten, eta urtetan paperez estaliak egon dira. Orain, Artelekun daude eta han ari dira Diputazioko teknikariak lanean, noiz eta nola pintatuak izan ziren zehazteko.

**Euskaldunberriak
etxearen hartzeko
kanpaina zabalik**

"Egonaldiak familia euskaldunetan" plangintzan aurtenago udan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Udaletxearen martxoaren 18ra arte.

Parte hartzen duen Orio-ko familia bakoiak 80.000 pta jasoko ditu ikasle bakoi-zeako.

**Neska-mutilen
arteko trukaketak**

Gasteizko OHOKO 4,5 eta 6. mailetako ikasle batzuk udako oporraldietan Gipuzkoako etxe euskaldun bat-tereta etorrikoliratzeke aste bete pasatzen, eta gero hemen-goak Gasteiza joango liratzeke. Elkartrukaketa egiteko prest dagoenak kontsulta dezala ikastetxeko zuzendariarekin edo harremanetan jar da dila GEU Elkartearekin, martxoaren 18a baino lehen, Telefonoa: (945) 26 25 92.

Jubilatuaren bazkaria

Martxoaren 24ean jubilatu-tek bazkaria izango due Altxerri jatetxeen. Prezia: 1000 pezeta.

URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

13 33 14

GABON

Plater konbinatuak,
pintxoak...

Telefonoa: 83 06 09

Orio's Shop

Era guztietako arropa

83 12 44

UDABERRIRAKO ARROPA BERRIAK

aukera zabala eta
prezio ezin hobeak

Anjel Lertxundiren liburu berria

Anjel Lertxundik "Tresak etakordelak" izeneko liburuaukeztu zuen otsailaren 11n Zarautzen. Liburu honetan, era batera edo bestera Zarautzkin zerikusia duten 31 istorio kontatzen ditu.

Oteizaren bost obra argitaratuko dituzte

Hilabete barru "Quosque tandem" liburu ospetsua berrargitaratuko du Pamiela etxeak, Oteizak berriut eta errebisatu duen bertsio berria eskainiz. Horrekin batera, urtearen bukaerako Oteizaren beste bost obra emanago dira argitara Pamielan.

"Konta Katilu" ikastolako 7. mailakoen kazeta

KARKARARI konpetentzia ateraz, Orioko Herri Ikastolako 7. mailakoek bertako berriak kontatzen dituen aldizkaria kaleratzen baitute. Dagoeneko bi zenbaki aterazituzte.



Orion bandak tradizio handia izan du, baina hala ere, azken urteotan ez dugu entzuterik izan

Musika-banda berria osatzeko deia

Orioko Musika Eskolako zuzendariak, Xabier Lizasok, herrian musika-banda bat osatzeko asmoa du. Aurtengo ikasturtean musika-eskola egiten ari den berritze- eta osatze-ahaleginaren barruan, oraingoan musika-bandari ailegatu zaio, beraz, txanda.

Aspaldi ez dago Orion bandarik eta, Xabier Lizasok adierazi digunez, hori pena handia da herrian hainbeste musikari on izanda. Xabierren esanetan, musika-banda batek asko bizituko luke herriko giroa eta, gainera, musika-eskolatik sortzen ari diren instrumentuoleentzat ere beren lanaren fruitua herriari erakusteko aukera ezin hobea izango litzateke.

Musika Eskolak banda osatzeko prest dauden guztiak gonbidatzen ditu bilera batera. Bilera martxoaren 11n, ostirala, egingo da Musika Eskolako lokaletan, gaueko bederatzi t'erdietan. Gonbidapena guziontzat da, lehendik jozen ibilitakoentzat eta, baita ere, inoiz ibili ez direnenetzat.

ZUMINTZA

- Ileapaindegia • Estetika
- Depilazioa • Sauna

Tfnoa: 83 17 56

ALTXERRI

Jatetxea

Telefona: 83 07 62

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO MATERIALAK

ANTONIO ALONSO S L



Almazena eta erakusketa

Santiago auzoa
tfnoa: 13 25 33
faxa: 83 57 01

Denda eta oficina

Iturbide, 5
tfnoa: 13 10 88

Orduak aldatu ditu anbulatorioak

Joan den otsailaren 21etik aurrera asistentzia medikoaren ordutegia aldatu egin da Orion. Aldaketa honetkin lortu nahi den helburua herriko osasun-zerbitzuaren efikazia hobetzea da.

Astelehenetik ostiralera ordutegi berria honako hau da: kontsultak eta urgentziak Orioko Osasun Zentruan atenditzen dira goizeko bederatzietatik arratsaldeko hilurak arte (83 58 88 telefonoa). Arratsaldeko hiruretan bostak bitartean, berriz, kontsultak Zarauzko Osasun Zentruan egin behar dira (83 55 00 telefonoa).

Larunbatetan mediku bat eta erizain bat egoten dira Orioko zentruan goizeko hamaiak t'erdietatik ordu batera eta pediatriko kontsultak Zarautzen egin behar dira goizeko hamarretatik ordu batera.

Astegunetan urgentziak Zarautzen atenditzen dira arratsaldeko bostetik hurrengo eguneko bederatzia arte. Larunbat, igande eta jaiegunetan ere urgentziak Zarautzen atenditzen dira edo, bestela, 46 11 11 telefonoa deitzu.



Dilistak antolatutako festak arrakasta handia izan zuen txikienen artean

Orioko haurrek ere ihauteriak ospatu zituzten

Gure herrian Ihauteriak ospatzea ohizkoa izan ez bada ere, piskanaka-piskanaka festa honek gero eta jarraitzaile gehiago ditu.

Ihauteri festetako ekitaldi azpimarragarriena "Dilistak" Gazte Taldeak ospatutakoa izan zen, otsailaren 12an herensuge bat pasiatu baitzen gure kaleetatik. Goian dituzuenak dira herensuge hori osatu zutenak.

Bestalde, ikastolan eta eskolan ere hainbat ekitaldi egin zituzten ihauteriak ospatzeko.

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

**2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garajeak**

kalea, 7

Tel: 83 41 64

Ordo 20010

TALAI
AHOLKULARIAK, S.L.

ASESORIA
FISKALA, LABORALA,
JURIDIKOA, KONTABLEA

Iñaki Olariaga Larrañaga

Esko Gudari, 50-B-1.E

Tfnoa.-Faxa: 133720

ORO



ARDATZA

Eusko Gudariak, 7

Tel: 83 10 88

**30 lagun joan dira
Danimarkara
barraren proiektua
ikustera**

Otsailaren 28an, Orio eta Aiako udalako eta arrantzale kofradiako ordezkariak Danimarkara abiatu ziren.

Bidai honen helburua Frantzia, Belgika eta Danimarkako zenbait herritako barrak eta portuak ikustear da. Gero Kopenhagen, bertako teknikariek egindako Orioko barraren maketa ikus-teko aukera izan zuten.

**400.000 pezetako
saria ETBko saio
batean Igor
Salsamendirentzat**

Otsailaren 11n Orioko 50 lagun joan ziren ETBko "Hor dago koska" lehiaketan parte hartzen.

Idoia Lazcano eta Igor Salsamendi oriotarrak hamabi lehenengoetik aurrera pasatu ziren, eta azken hau finalera iritsi zen. Eskuratu zuen saria 400.000 pezetakoakoa izan zen. Dena den, saria erdi bana egin zuten, aldez aurretik hori egitea erabaki zute-lako.

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi
harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65



Herriko plazaren teiatua konpontzen ari dira

Herriko plazaren estalkia berritzeko lanak hasiak dira dagoeneko. Udaleko teknikariek antzemanda zeuden aspaldian egurrezko estalkia usteltzen hasia zegoela zenbait puntutan eta berritu beharra zegoela.

Lanak otsailaren erdialdera hasi ziren eta, Udaleko Zerbitzu Teknikoek adierazi digutenez, martxoan bukatzeko asmoa dago. Lanaren aurrekontua 1.083.308 PTAKoa (BEZ barne) da eta egin beharreko lanak bi dira; ustelduta dauden egurrik kendu eta berriak jartzea, alde batetik eta, bestetik, teiatua ondo inpermeabilizatzea.

Plazako lanak bukatzen diren bitartean ezingo da osteguneko azoka bertan egin eta, hortaz, lekuz aldatu da, Ibai Ondo pasealekura.

AURRERA
disko-taberna
ORIO

Autoak aukera
onean
AIA ORIO
Telefona: 13 04 38

RAMIRO

ARGAZKIAK

Eusko Gudari, 9

83 10 48

**OLIDEN
HARATEGIA**

EUSKO GUDARI, 2
TFNOA 83 10 86



Otsailaren 26an ateratako argazkia, partidu aurretek.
Etxeberriak eta Erkiziak irabazi egin zuten. Errenteriako bikoteari, 35-22

Paleta eta pala motza txapelketan sei partaide oriotor

Tolosan antolatzen den pala-motzako Txapelketan Tiburtzio Etxeberria eta Eugenio Aranburu (Zapatero) oriortarrek parte hartzen dute. Gipuzkoako paleta Liga Probintzialean berriz, Luis Erkizia eta Tiburtzio Etxeberriak parte hartzen dute.

Hauezaz gain, suplente gisa, Angel Mari Miera, Jose Inazio Atorrasagasti eta Julio Aranburu aritzen dira.

Orain arte lortutako emaitzak ezin hobeak izan dira. Paletan, bi partidu jokatu eta biak irabazi dituzte eta pala-motzan jokatutako partidu bakarra irabazi egin dute ere.

Bizikleta-irteerak Ibai-Ondok antolatuta

Anibarko Portuan dagoen Ibai-Ondo bizikleta dendak bizikleta-irteerak antolatzen ditu igandero. Irteera hauek ez dute aldez aurretik ibilbide finkorik. Goizeko bederatzietan denda aurrean bildu eta bertan erabakitzent dute nora joan, eguraldia kontutan hartuz.

Joaten direnak bizikletaz ibiltzen ohituta daude, beraz nahiko ibilbide gogorrak egiten dituzte. Batzuetan mendi aldera joaten dira, eta bestetan errepeidean ibiltzen dira.

Dena den udara alderako, hasi berriez ere aukera izateko, talde ezberdinak antolatzea pentsatzen ari dira.

Urretabizkaia I.a Galarretako lehen mailan

Urretabizkaia I.a oso partidu onak jokatu ditu azken bolada honetan, eta horren ondorioz lehen mailako partiduak jokatzen ari da Galarrreta pilotalekuaren.

PATXI
HARATEGIA

Telfonoa: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA

KIROMASAIA ESTHETICIEN

ENDIA 3 TELNOA 83 18 97

Antilla
Jatetxea

Eguneko menua, karta,
pintxoak...

Tlfnoa: 83 07 50



ORRAZKERAK

Telfonoa: 83 12 61

ITURAIN
okindegia

Aritzaga Tlfnoa: 83 08 28

GURE TXOKO
TABERNA

ARITZAGA KALEA

Arrauneko denboraldiak hasiera paregabea

Hasia da aurtengo arrauneko denboraldia, eta dagoeneko hiruzpalau estropada jokatuta daude. Aulki mugikorrean oriotarrak izan dira senior mailan irabazle nabariak, jubenilak eta kadteteak puntakoentzat ibiltzen.

Otsailaren 6an Orion ospatutako jeitsieran seniorren zortzikoak, lemazainduen laukoak eta Jemazain gabeko laukoak, hirurak, irabazi egin zuten, Euskadi mailako estropaden historian goi-mailako marka berria jarriaz.

Herri mailako XI. futbito txapelketa

Kurrumurru Gazte Taldeak antolatu du herri mailako XI. futbito txapelketa.

Parte hartu ahal izateko 6-tik 10-erako ekipoa egin behar dira eta partaideek 17 urte baino gehiago eduki behar dute.

Izena Aurrera tabernan eman behar da martxoaren 7a baino lehen. Inskripzioa egitean 8.000 pezeta ordaindu behar dira.



220 parte hartzale Kukuarriko II.ibilbidean

Kirol Antolakuntzetarako Orioko Komiteak otsailaren 27an antolatutako mendiko bizikletazaleentzako probak arrakasta handia izan zuen, eguraldi onak lagunduta.

Proba hau konpetizioa ez denez, ez zen irabazlerik izan eta 36 sari zozketatu ziren parte hartu zuten guztien artean.

Bestalde, aipatutako Komiteak, apirilaren 2rako "Euskadiko II. Sari Nagusia, Luis Atxega Trofeoa" txapelketa antolatu du. Bertan 100 kiloko harri kubikoa altxatu beharko dute.

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa
— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
Tfnoak: 83 00 05
13 25 32

**BORDATXO
Taberna**

13 30 14

**KAIA
JOLASAK**

TXOMIN
arraindegia
Tfnoa: 83 27 47

**LIZASO
ALTZARIAK**

Eusko Gudari, 46 Tfnoa: 83 07 84
Aita Lertxundi, 6 Tfnoa: 13 33 01

Mari Jose Manterola Arregi

Neska korrikalariaren gazi-gozoak

*Esan ohi da
maratoilariak
bakardadea sufrizten
duela, horixe
gertatzen zaio Mari
Joseri karreretan
neska bakarra
denean. Bain
zaitasun guztien
gainetik gozoak
gehiago omen dira
gaziak baino bere
“karreran”.*

KARKARA.- Noiztik
habil korrika?

M. Jose.- Deportea beti
gustatu izan zaidak. Korrika
egiten, gizona ezagutu,
ezkondu eta orduan hasi ninduan.
Ordura arte gimnasia
eta saski-baloian aritzen ninduan
eskolan.

K.- Orduan gizonak era-
gin haundia izan al du hi-
regan?

M.J.- Gizonak lagundi
zidak lasterketetan eta parte
hartzen, baina zaletasuna beti
izan diat. Gertatzen dek
etxeen ez dedala izan bultzad-
arik, mutilek izaten dutena.

K.- Hik sentitu al den
diskriminaziorik alde ho-
rretatik?

M.J.- Bai, mutilak askoz
aukera gehiago izateaz gain
kirolarako, arraunean, futbo-
lean etab., gainera bultzada



37 urte ditu eta oraindik korrikaldi askotan ikusiko omen degu

ere handiagoa zeukaketxean,
eskolan eta edonon. Neska
gelditzen dek irtenbiderik
gabe, nora jo eta zer egin ez
dakiela askotan.

K.- Lehenengo lasterke-
ta non eta noiz?

M.J.- Aurrenekooa hemen
Orion, San Nikolasetan.

K.- Neska bakarra al
hintzan?

M.J.- Ez, Patricia Moran
eta Rosa Jimeno ere tartean
hituan, gerotzik neska baka-
rra izan nauk.

K.- Eskola garaian nes-

kak ere ibiltzen ditun kiro-
lean, baina gero ia denek
utzi egiten dinate. Zerga-
tik gertatzen da hori?

M.J.- Ez zekiat ba... Bo-
rondatze handia behar dek
segitzeko, bakarrik eta ko-
rrientearen kontra. Neri
emakume askok esan izan
zidak: “zuk daukazu morala
zuk, bakarrik eta, ni aspertu
egiten naiz”.

K.- Aldaketarik ikusten
al den jende gaztearekin?

M.J.- Gauregun neska ge-
hiago ikusten dek lehiakete-

tan, baina batzaz beste, 30
urtetik gorako jendea dek,
neska gazteagokoak, ez di-
tuk joaten.

K.- Hik zer karreretan
parte hartu den?

M.J.- Ba Orion egindir diran
gehientsuenetan. Gero egon
nauk haudunaldietan, zortzi
bat urte, ezer askorik egin
gabe, eta orain dela lau urte
edo hasi nauk berriz. Joan
dan urtean Behobia-Donos-
tia, hogei kilometroko laster-
keta egin n ian. Oriorik
kuadrilla handia joan gint-
tu, baina ni neska bakarra.
Beste bat Gasteizen egin
nian. Antiguon EGUNKA-
RIAREN alde egindako krosa
ere korritu nian. Lilatona,
emakumearen alde izaten
diran ospakizunetako bat izaten
dek lasterketa hau, eta
Zarauzko kros mistoaere bai.

K.- Segitezotan al haiz?

M.J.- Ni bai, ahal dedan
neurrian bai. Orain borroka
pixkat ere egin behar izaten
diat gizonarekin, berak den-
bora gutxiago zeukak eta
badakik.

K.- Zer esan nahi dion
Orioko emakumeei?

M.J.- Bakorrik ibiltzeak
displizina ematen duela, eta
horrekin batera indarra eta
illusioa. Nik konbidatu egin-
go nizkikek neskak gehiago
partizipatzera, eta ez baka-
rrik deportetan, gizarteko
bestelako ekintzetan ere bai.

ARGI-GAIAK

elektrizitatea

argi halogenoak

Carmen

ARRAINDEGIA

Tfnoak: 83 05 37 83 33 71

**Eugenio
Garmendia**

KONTZEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66



ORIOKO HERRI IKASTOLA

Zer aurkituko duzu Orioko Herri Ikastolan?

- ✓ Ikasketarako giro goxoa, egokia eta disziplinatua
- ✓ Irakaslego profesionala eta sainatuaz haurren heziketan gurasoekin batera arituko dena.
- ✓ Irakaskuntza aurreratu eta kompetentea: kultura klasikoa eta teknologia berriak uztartzen dituena
- ✓ Famili girotik hurbil dagoen ikastetxea
- ✓ Zure haurra laganartean eta herrian ongi integratuko duen: kirolak, atletismoa, bertsolaritza, dantza, korua, antzerkia, Olentzero, Santageda, Kultur Astea...
- ✓ Euskara eta Euskal Kulturan oinarriturik, Kultura Unibertsalera irekia dagoen ikastetxea
- ✓ Haurra bere osotasunean hartzten duen heziketa: adimena, afektibitatea, nortasuna, gizarterako moldaera, bizitzaren zentzuna
- ✓ Zeurea delako, zure partaidetza estua eskatzen duena
- ✓ Herriaren eta gizartearen babes zabala duen



Aita Lertxundi frantziskotar, diplomatiko eta jakintsu oriotarra

Bi urte barru, martxoaren 8an, beteko dira ehun urte Aita Lertxundi hil zela. Bi urteko epea luzea eman balezake ere, Andres Garmendia Orioko apaiza hasita dago dagoeneko mendeurrena ospatzeko prestaketa. Ordura bitartean izango da denbora gaiaz berriz ere hitz egiteko, baina guk, erreportaje honen bidez, lehen pausoa eman nahi izan dugu askori ezezaguna zaigun oriotar honen berri zabaltzeko.

Hemen azaltzen ditugun datuak Andres Garmendia apaizak eta Alberto Olidenek eman dizkigute.

• JABIER ZABAleta •

Aita Lertxundi, Jose A. Lertxundi bataio-izenez, Orion jaio zen 1836ko otsailaren 24ean. Lehen urteak Orio, Asteasu eta Segura artean pasa zituen. Asteasuko parrokoa, Jose Maria Lertxundi, osabu zuen eta harenkin egin zituen lehen ikaskeetak Arantzazara joan aurterekik.

Hamabost urte zituelahasi eta hainbat urtetan Frantziskotarren Arantzazuko Komentuko organoolea izan zen. Hamazazpi urterekin sartu zen komentuan eta ia lau urte egin zituen bertan.

1856an, hogeit urterekin, Priego (Cuenca) frantziskotarrek ireki berria zuten misiolarentzako eskolara

joan zen misiotarako prestatzeko. 1859an apaiz egin eta 1862an Marokoko misioetara destinatu zuten, osasun eskasekoa zelako eta hango eguraldi bero eta lehorra konfigurazioa ziolakoan. Giro-al-daketa, hala ere, ez zion erabateko onik egin, bitzitzaz osoan oso gaixorik ibili baitzen

**Marokora
hogeita sei
urterekin**

Misiotako lehen urteak Tangeren egin zituen eta 1867an Tetuango misioko buru izendatu zuten. Kongregazioan zuen importazioa eta itzalak gora egin zuten etengabe urte haietan eta 1877an Marokoko misiokako erlijioso guztien buru izendatu zuten.

Garaiko alidzkari eta egunkarietan ugariak dira bere lanaren erreferentziak. Marokoko hainbat hiri eta herrian eritetxeak, eskolak, elizak eta bestelakoak sortu zituen; horien artean, aipagarriak dira, besteak beste, Tangerreko eliza, eritetxea eta eskolak edo, Tangeren bertan, pobrentzako eraikia-razi zuen 35 etxeko auzoa. Hori guztia zela-eta, Marokon «Pobreen aita» esaten zioten Aita Lertxundiri.

**Chipionako
misiolari-eskola**

Marokon misiolari gehiago behar zirela-eta, Frantziskotarrek beste misiolari-eskola bat sortzeko erabakia hartu zuten eta hori lortzeko gestioak Aita Lertxundiren bizkar utzi zituzten.

Aita Lertxundik, hainbat aukera aztertu ondoren, azkenean, Cadizko Chipiona herrian dagoen Reglako Santutegian ezarri zuen eskola berria. Garaiko egunkarietan jasotako berrien arabera, 1888ko irailaren 8an inauguratu zen frantziskotarren eskola berri hura. Gerrotik misiolari askok egin zituen bertan misiotarako prestaketa.

Arabiera ederki ikasi zuen

Tangerreko misiora iritsi eta segituan hasi zen Aita Lertxundi arabiera ikasten, hango herritarrengana iris-teko ezinbestekoa zuela ikusita. Denboraren poderioz, arabiera oso ondo ikastera iritsi zen, bai aldaera kultoa (Koranak erabilitzen duena) eta bai Marokon hitz egiten den aldaera. Horren frogadira idatzia utzi zituen hiru liburu haneak: «Gramática del árabe vulgar que se habla en Marruecos», «Cronomatía hispano-árabiga» eta «Vocabulario árabe-español». Bere gramatika da Marokoko hizkerari buruz argitaratua dagoen lehen obra (1872koa da lehen edición), Hizkuntzarekiko interes horren frogada, baita ere, Tetuanen eraikiarazi zuen misiolarentzako arabiera-zko eskola.

Diplomatiko ospetsua

Marokoko Muley Hassan sultanarekin oso harreman onak izan zituen eta, harreman horien ondorioz lortu zituen lurra eta etxek mision berriak craikitzeko eta bestelako instalaziotarako. Askotan egin zuen bitartekari eta interprete lana sultana-rentzat. Sultanak Aita Lertxundiren bitarteze bideratu zituen maiz bai Espaniako eta bai Europako beste zenbait gobernuetako harremannak. Marokoko hainbat enbaxadari laguntzen ere ibilizten, besteak beste Errroma Leon XIII.a bisitatzeko egindako bidaian edo Afrikako iparraldeko beste zenbait herritarra egindakoe-


tan. Bestalde, Espaniako enbaxadaren interpretea ere izan zen hainbat alditan.

60 urterekin hil zen

Aita Lertxundi Tangerren hil zen 1896ko martxoaren 8an, 60 urte zituera. Munduko egunkaririk ospetsuenetan emanzenharen heriotzaren berri, Garaiko kronika baten arabera, sei mila lagunetik gorabildu zen Aita Lertxundiren ari-maren alde egin-dako hileta-elizkizunetan eta, gero ere, jende asko joaten omen zen peregrinazioan Tetuanen zegoen haren hilobiraino.

Jose M. López misiolari frantziskotarrak Aita Lertxundiren biografia bat idatzi zuen, hora hil eta urte batzutara. Lanhorrieskerai legatu zaizkigu hemen erabili ditugun datuetako asko,

Chipionako Komunitate Frantziskotarrak estatua handi bat dedikatu zion Aita Lertxundiri 1949an eta estatua hori han dago jarrita oraindik, Santutegiaren aurrean. Bestalde, Chipio-



Orioko apaiza Chipionan egon zen orain dela urte batzuk. Argazkian Aita Lertxundiren estatuaren ondoan ageri da

nako Udalak ere Aita Lertxundiren izena jarri zion herriko kale bati.

Mendeurrena prestatzetan

Bi urte barru beteko dira ehun urte Aita Lertxundi hil

zela. Hori dela-eta, Andres Garmendia, herriko apaiza, hasi da dagoeneko hainbat gestio egiten mendeurrenaren behar bezala ospatzeko. Adierazi digunez, Chipionako apaizari gutuna bidali dio dagoeneko elkarren artean zerbaitegiko posibilitatea aztertzeko eta, bestalde, badu asmoa Udalari ospakizunetan lagun dezan eskatzea ere.

Mendeurrenenak eskainiko duen aukera aprobetxatuz, Aita Lertxundiren izena eta izanak eman nahi ditu ezaugaztura Andresek, zeren eta, berak dioen bezala, "oriatorrok gutxiengi baitakigu gure herriko gizon handi hartaz".

Marokon "Pobrean Aita" esaten zioten Aita Lertxundiri

Erabateko intsumisioa Espainiari

“Bai Independentziari” plataformaren kidea den M.A. Juarezek Eginen idatzitako artikulu bat ibonek eman-dako erantzuna da ondorengoa, giek euskeratuta. Juarezek artikulu hartan zioenez ezin du ulertu nola euskaldun batek Espainiako selekzioaren izenean parte hartu dezakeen inon.

Labur idatzi nahi dut, ahal dudan neurrian, baina nahi nuke, baita ere, nire jarrera garbi geratzea. Norbaitek azalpenen bat nahi badu edo zerbait eztabaideku nahi badu, idatzi dezala Egin-era edo, bestela, hitz egin dezala nirekin.

Hasteko zero esan nahi dut: erdaraz idatzten badut, erantzun nahi dudan idatzia (Egin, 94.01.31) horrela zegoelako da eta ez nuke nahi hura irakurritako inor nire erantzuna ulertu gabe geratzerik.

Idatzi hartan esaten zen euskal kiroliariok ez genukeela parte hartu behar Espainiako selekzioan. Nire aldetik esan behar dut hori egiten badut ez dela nire gusto, baizik eta «legeak horretara behartuta». Nahiago nuke nik Munduko Txapelketa edo Olinpiadetara Euskadien izenean joan!

Dudarik ez da euskaldunok Espainiako selekzioari uko egitea keinu politika litzatekeela. Baina horixe besterik



IBON URBIETA

ARRAUNLARIA

ez, keinu hutsa. Euskal kiroliari munagak estutzea besterik ez gemike lortuko horrekin.

Idatzi hartan esaten zen, baita ere, kiroliariok besteek ez duten ospe eta publizitatea dugula eta gure jarrerak eta guk esuten duguna erreferentzia izaten dela askorentzat, hitez ere gazteenetzat, gurekin identifikatzen direlako.

Euskaldun onak bere herriarekin duen kompromezua dela-eta, askoz inteligenzago iruditzen zait gure ospeari mugarik ez jartza eta gero, oraingo egoerarekin konforme ez gaudela adieraztea.

Horrexegatik ez naiz lotsatzen Es-

painiako selekzioan parte hartzeagatik.

Zuk diozunez, erraza omen da dena politikarien esku uztea; badakit hori ez dela konponbidea baina dena kiroliarien esku uztea ere ez. Ezin zaigu esku gure karrera deportiboari uko egitea Euskadien izenean, jendeak karmen «española» (DNI) patrikan daraman bitartean.

Askotan eztabaideku dut kontu hau kalean, inoiz ez baitiot uko egin gai honetaz hitz egiteari. Eta norbaitek Espainiako selekzioan arraun egin du dala aurpegiratu didan bakoitzean, nahikoa izan zait bere karmeta erakustea eskarrea eztabaidekin bukatzeko. Garbi dago: piper potoa eta nazionalitate espainola dugu guztiok patrikan.

Nik uste, hasi beharko genukeela edozain motatako dokumentu espainoli uko egiten. Hori bai litzatekeela erabateko intsumisioa Espainiari! Horrelako iniziatiibaren bat sortzen bada, zau-de seguru ni jarraitzaile izango nauela; horrela, nahita ere, ezingo nuke Espainiako selekzioan parte hartu.

Bukatzeko, berriz esan nahi dut egin beharreko politikarien eskuetan uzteak ez duela balio, eta kiroliarien uzteak are eta gutxiago. Nahikoa da euskal gizarte osoak kompromezua bere bizkar hartzera eta kitu.

ASEGURUAK

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 -1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

83 00 44 13 20 26



ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA

SOLARIUMA
- PERFUMERIA

San Nikolas, 2 Tlfnoa: 83 31 70

ertza
USAINDEGIA

Laura G. de Txabarri eta Pili Olariaga:

"Emakumeok eta gazteok osatzen dugu langabetuen talderik kaltetuena"

Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna gain-gainean dugu. Honenbestez, apropoza iruditu zaigu bi neska gazte oriotar, langileak noski, gonbidatzea KARKARAko mahaira.

Besteak beste, emakumearen egoera lan munduan, krisi ekonomikoa, langabezia (emakume eta gazteona bereziki), lan merkatuko erreformak eta beste hainbat gai ikutu eta aztertu genituen bi lagun hauen konpainian: batetik, Laura Gonzalez de Txabarri ELAko abokattua eta bestetik, Pili Olariaga LABeko administrazioko liberatua.

IDOIA SAN SEBASTIAN

KARKARA: Oker ez banago, LAB eta ELA sindikatuek UGT eta CCOO-ekin batera, greba orokorra egin zenuten urtarrilaren 27an Gobernuak proposatutako lan merkatuko erreforma ekonomikoena aurka. Zuen ustez, era ginkortasunik izan al du grebak? Aurrerapausorik egon al da elkarriketa rako bidean?

Pili Olariaga: Nik hemen gauza bat bereiztuko nuke. Egia da, CCOO-ek eta UGT-k, ELA eta LAB-ek egin berean egin genuela greba, baina grebaren edukia ez zen bertina izan. Batetik, Estatistik datozen erreforma guztien kontrako ekintza batizan zen eta beste alde batetik, ELA eta LAB-ek lan harremanetako euskal esparru autonomo baten barrian jokatu genuen orduan. Gainera guk benetan azpimarratu genuen greba bera ez zela

helburua, greba honekin erreforma atzera botatzea ez zela lortuko, grebak balio izan zuen erantzun mailan arazo hori gizarteratzeko, baina aurrera begira mobilitzatzen eta lanean jarraitu beharko da bai erreformaren

gain, baita ere lan harremanetako esparru autonomo horri dagokionean. Hau da, egun berean izan arren ez zen bateratua izan.

K: Esan bezala, Gobernuak erreforma batzuk proposatutu ditu krisia gainditzeko. Zuen iritziz erreforma horiek nahikoa al dira gure egoera ekonomikoa konpontzeko ala beste soluziobiderik ba al dago?

Laura G. de Txabarri: Onera joateko eznoski. Guztiz alderantziz baizik, gauzak okerrera joango dira, nire ikuspegi juridikotik beti ere. Gainera, batetik erreforma bat dago eta bestetik proiektua, zain dagoena oraindik. Guztii honek aldaketa oso garrantzitsua suposatzen du,

hau da, urte askotan zehar lortu duguna galtzea. Eta bestetik, oso erreforma sakona da. Langileak eskubide asko galduko lituzke, kontratu individualak asko indartuko lirateke eta konbentzioak berriz, asko hustu.

P. O.: Oso importantea da azpimarratzea urtetan langileak lortutako eskubideak bapatean desagertuko liratekeela eta langileekiko harreman individuala ezartza nahi dela. Kolektiboa mantentzen den bitartean honek indarra edukiko du, pertsonak ez daukana. Batetik, beraz, langileari indarra kendu nahi zaio enpresariari emateko, eta modu honetan enpresariak nahi duen guztia egiteko askatasuna izango luke.

K.: Zertan datza lehen



Laura ELAko abokatua da eta Pili LABeko administrazioko liberatua

aipatutako lan harremanen euskal esparru autonomoa?

P.O.: Nahasketarik sor ez dadin, nire ustetan argitu beharra dago ELA eta LAB gaudela Eukadiko abertzalesuna defendatz eta bestetik CCOO eta UGT nazionalismo espanyartaren defendatzailak. Horrela, bi sindikatu hauetatik Madrilera eraman nahi dituzte guk hemen izan ditugun aukera guztiak, negoziazio kolektiboari dagokionean. Hemen ordea, Euskadiko langileriaren gehiengoa ordezkaria ELA eta LAB-ek dugu. Horrela, LAB eta ELA ordezkartzarik gabe geratuko ginateke eta CCOO eta UGT-k ez luke inor ordezkatzeko Madrilgo langileak baino. Bestalde, legeak Madrilen egiten dira eta EAE-k ez dauka konpetentziarik lan arloan bere legedi propioa egiteko, nahita nahi ez Madrilgo aplikatu beharrean gau de. Beraz, guk bi gauza aldarrakatzen ditugu: batetik, negoziazio kolektibo esparru autonomoan ematea, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak izan ditzala konpetentziak lan arloan legeak egiteko.

L.G.T.: Oso importantea da esatea zer suposatzen duen negoziazio kolektiboak Madrilen egiteak. Gu Madrilen ez gara inor, Espainiako kopurua kontutan hartuta, Euskadiko langileak beraz, ahotz gabe geratuko ginateke. Han, Madrilen UGT eta CCOO-k izango luke ordezkartzeta eta bi sindikatu hauek ez dute Euskal Herriko langileriaren gehiengoa ordezkatzzen, hemen jenderik ez baitute.

P.O.: Nik gaineratuko nuke, hemengo konbenio asko eta asko Estatukoak

baino askoz hobeagoak direla. Hemen langile mugimenduak oso dinamika desberdina jarraitu du, askoz mobilizatuagoa eta indar haundiagoa izan du. Estatuan beste dinamika desberdina gertatu da, agian industria gutxiago egon delako eta baita ere herri honek betidatik izan dituelako bere ezaurgarri eta berezitasun propiokoak.

K.: Nola baloratuko zenukete INEM-ek izan duen funtzionamendua orain arte?

L.G.T.: Txarra izan dela ageri agerian dago. Dena dela, transferentziak eskatu dira alor horretan ere. Baino nire ustetan, INEM egotea beharrezkoa da, batez ere, publikoa delako.

P.O.: Nik egia esan, ez dakit oso ondo INEM-ek nola funtzionatzen duen. Denaden, kontratazio enpre sa pribatu sorrerak harre-

manak oraindik askoz gehiago txartuko ditu.

K.: Orioko Udalaren erabakiz, industrialdea Motondoko paduran eraiki nahi da. Pertsonalki zer iritziduzue gai honi buruz?

L.G.T.: Bi alde bereiztu beharra dago. Batetik, talde ekologisten kritika, eta bestetik, industrialdea egitea komuni den ala ez. Asko pentsatu beharreko kontua da hau. Esaterako, Zarautzen eta Usurbilen pabelloei industrialak saldu ezinik ari dira. Industrialde bat eraikitzeak bestalde, ez du esan nahi toki hori industria bete eta lana sortuko denik. Une honetan arazoa ez da lur falta edo pabelloei falta, bestelakoia baizik. Jendeak ez dauka ez dirurik ez gogorik enpresa bat sortzeko. Gainera, egin behar bada egingo da leku egokian eta modu egokian. Azken finean, ikuspegi guztiz aldreibesa egiten da jen-

dea nahas dadin. Nire ustez, orain bertan arazoa beste bat da. Gainera, poligono industrial bat eraikitzeak ez du zertan ingurugiroa kalteku behar. Horretarako daude tekniko espezialduak.

P.O.: Guzti honek planifikazio bat behar du. Gainera, "industrialdea Motondon bai ala ez" ea mota honetako jarrera itxiak behingoz alde batera utzen ditugun eta normaltasun osoz hizketan hasten garen guztiok. Motondok honek balio ekologikoa baldin badu ez dezagun izorratu eta iku dezagun herriak ze aukerak esaintzen dituen.

K.: Zer iruditzen zaizue hobeto, portu deportiboa bat eraikitzea ala dagoena arrantza-portua indartu eta bultzatu behar dela?

P.O.: Herri honen aberastasuna arrantzaz datza. Beraz, ikusi beharko litzateke zer soluzio bide eman diezaiokeen herriak eta saiatu

buru-belarri hau aurrera ateratzen. Egia esan, egungo arrantza portuak itsasontziak eta baporeak ego-teko bakarrik balio du eta ez du arrantza portu baten funtzoak betetzen. Arrantzaren inguruko industria nola sortu, nola moldatu ikusi beharko litzateke. Oriok behar beharrezkoa duena horixe da eta. Portu deportiboa proiektua konponbide gisa atera ohi da baina honekin ez da ezertxo ere konpontzen. Aberastasun minimo bat ekarriko badio herriari ongi etorrira, ezer konponduko ez bada ere. Gainera, turismoak badauka desabantaila bat: kampotarren menpe bizi beharra. Orain arte industriak eskainitako askatasun hori apurtuko litzateke.

K.: Eta atzerriko jendeak diru gehiago utzik



"Mundu honetan ez gaude emakume eta gizonak, pertsonak baizik, eta pertsona bezala tratatzea eskatzen diu"

balu Orion bertako industriak baino?

L.G.T.: Herri batek ezin du soilik zerbitzuekin bizi, industria behar da. Arrantzak eta bestelako industriei sortzen dute aberastasuna. Gero, noski, dirutza hori zerbitzuetan inbertituko litzateke, baina zerbitzuek ez dute balio herri bat mantentzeko.

P.O.: Produzitzen ez duen herria beste herri batzuen menpe biziko da.

K.: Martxoaren 8an emakume langilearen eguna ospatzen da. Zer eskatuko zenukete egun berezi horren gainean?

P.O.: Nire ustez, emakumeok ez gaude erabat integraturik. Eguna ospatzeak egoera ez dagoela normalizatua suposatzen du. Historikoki uste dut emakumea ez dagoela integraturik. Krisi egoeran argi eta garbi ikusten da egoera hau, hau da, kalceratzen duen lehenengo pertsona emakumea baita. Lanik soberan badago, emakumeak lan egingo du baina lanik egon ezean gizona lanean arituko da emakumea etxearen dagoen biltartean. Erabakiak hartzen diren tokietan ia ez dago emakumerik; enpresan, politika zein administrazio mailan, sindikatuetan... Nire ustez, integrazioaren imagina asko zaindu da; emakumeak berdinak gara, integraturik gaude etabar. Baina eguneroko errealityatean emakumearen rol-a oso finkaturik dago. Ez dut ge-



"Krisia ez da oriottarra edota euskaldunona, arazoa mundu mailan kokatu behar dugu"

hiegizko aurrerapausorik nabaritzen zentzu horretan.

K.: Zaila bada ere, laburbilduko al zenukete esaldi batean aurrez aipatutako eskaera hori?

P.O.: Mundu honetan ez gaudela emakume eta gizonak, pertsonak baizik, eta gizona bezala tratatzea eskat-

zen dut soilik.

L.G.T.: Gauza bera esango nuke, alegia, integrazio hori benetakoia izan dadila eta emakume eta gizoneneko arteko berdintasun hori behingoz lortzea. Nabarmendu nahi nuke Euskal Herriak langabezi tasa altuena izateaz gain, emakumeek

eta gazteek osatzen dutela talde kaltetuena.

K.: Azkenik, nola ikusten duzue oriottarra etorkizun ekonomikoa? Nondik edo zerik ekarriko lioke Oriori etorkizun ekonomiko ona, alegia?

P.O.: Arrantza hortxe dago, bultzatu behar dena eta intenbide bat aurkitu behar zaionta. Hori baita hemen daukaguna. Eta daukaguna, mantendu, indartu eta bultzatu egin behar dugu. Honekin batera, ikusi beharko litzateke zerbaite gehiago ekar edo sor daitekeen. Dena den, horrela hitzegitea ere... Berriro diot, nire ustez, krishi ekonomiko hau krishi estrukturalari egotzi behar zaio. Eta arazo hau ez dugu ez Orion ez Zarautzen konponduko.

L.G.T.: Nik ezin dut krisia Orio mailan kokatu. Arrantzaren mundua Orion dago, bai, baina industria ez da herri bateko kontua. Enpresa bat Orion edo Zarautzen egon, azken finean gauza bera da. Ezin ditugu guneak itxi. Ezin dugu esan gure kaleko etorkizuna nolakoa den. Denon arazoa da azken batean. Intenbidea beraz, urrutti dago eta zaila da. Euskadiko krisiari konponbidea emateko proposamenak baditugu, jakina. Baina, Euskadi ezin da Europako testuingurutik ateratzen. Arazoa ez da soilik oriottarra edota euskaldunona. Arazoa mundu mailan kokatu behar dugu.

daddy

BAKERO,NIKI,
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 132816 - ORIO

Goxoki

Gozotegi-Kafetegia
AZKUE

Eusko Gudari, 33. Tfnoa: 83 39 20

ALDERDI POLITIKOEN TXOKOA

HERRI BATASUNA



1994ko Udal aurrekontuak

Urteko aurrekontuaren eztabaia aurrekoaren hausnarketa egiteko garai egokia izaten da.

Aipatu behar dugu ondoren azaltzen ditugun datuak dagoeneko azken plenoan PNV, EA eta Talde Independientearen aldeko eta HBren abstentzioarekin aurrera ateratakoak direla.

DIRU SARRERAK

- 1- Zergak eta tasak
- 2- Transferentziak
- 3- Ondarezko diru sarrerak
- 4- Salmentak (etxebizitza 1)

	1994	1993
1- Zergak eta tasak	107.245.000	117.000.000
2- Transferentziak	202.035.000	220.000.000
3- Ondarezko diru sarrerak	111.420.000	110.200.000
4- Salmentak (etxebizitza 1)	6.000.000	0
GUZTIRA	426.700.000	447.200.000

Transferentziako atalean kopururik garrantzitsuena Diputaziotik jasotzen duguna da. 1994ean Orioko Udalak 168.000.000 pta. jasoko ditu, iaz bezala. Gai honetan HBk Diputazioan egindako proposamena onartu izan balitz, Orioko Udalak 41 milioi gehiago gehiago izango lituzke. Haueskunde garaietan Udal Autonomiaz denak aho batez jardungo badira ere, eguneroko praktika baimo egia handiagorik ez dago bakoitzaren jarrera ikusteko.

Ondarezko sarreraren atalik aipagarriena kanpinekoa da, 45 milioi pezetarekin.

GASTUAK

- 1- Personal gastuak
- 2- Ohizko gastuak
- 3- Amortizazioak
- 4- Subentzio eta bestelakoak
- 5- Inbertsioak
- 6- Bestelakoak

	1994	1993
1- Personal gastuak	149.767.000	145.949.000
2- Ohizko gastuak	97.725.000	104.317.000
3- Amortizazioak	16.000.000	21.200.000
4- Subentzio eta bestelakoak	46.825.500	47.103.669
5- Inbertsioak	109.382.500	123.086.400
6- Bestelakoak	7.000.000	5.543.000

ZER PROPOSAMEN EGIN DITU HB-K?

1- Etxebizitza sozialen aldeko benetazko jarrerak (zenbat gehiago itxoin behar da?) Horretarako kaskoan dauden etxe hutsen jabeekin harremanak eta gestio-lanak eginez.

2- Gaur egun langabetuen lan iniziatiabak eta formazio premiak bideratzeko Etxe Luzearen erosketa gestionatzea proposatzen dugu, posible ikusten dugu zati bat museo modura erabiltzea baita ere.

3- Botaleku pabeiloiai buruz Alkateak erakutsi duen iniziatiiba faltaren ondorioz, Udal Osoaren konpromezuaz bultzatu dugu pabeilo industrial merke bat egin nahian.

4- Kasko zaharrean dagoen ekipamendu faltari aurre egiteko. Iturbide plaza urbanizatu eta azpian garajeak egitea proposatzen dugu.

5- Estropalari atzean, inguruko jendearentzat garajeak egin eta plaza urbanizatzea proposatzen dugu.

HB-REN ABSTENTZIOAREN ZERGATIA

Nahiz eta gure proposamen gehienak onartutak izan, ez dugu gure burua ez eta inorena ere engaintatu nahi, udaletxean dagoen planifikazio faltaren ondorioz ezinezkoa ikusiten baitugu onartutako lana gauzatzea. Bestalde, egoera hau ondo datorria PNVko Alkateari, gaiak berak nahi dituen bezala eramateko eta egoera honen aurrean EAk eta Talde Independienteak daramaten joko iluna ere ez dugu isildu nahi.

Gogoratuko zarete legealdi honen hasieran zenbat gauza esan eta promesa egin ziren. Zer gertatzen da orain? Dena gelditu eta bitartean hor ikusten dugu hondartzat inguruko ordenazio-lanak buru belarri bukatzen. Non dira lehentasunak?

Guzi honi, nahi duzuen izena jarri: "inkapazitatea", "inko-pentzia", "borondate falta", "interesak"... Inguruko herrietan etxebizitza sozialak egiten ari dira.

Benetazko konpromezu eta zuzentasunezko jokabideak ez dauden bitartean zaila izango da HBk aurrekonturik onartzea.

-EROSLE-
AUTOZERBITZUA

**MAPFRE, S.A.
ASEGURUAK**

Eusko Gudari 50 B-1.E
Telefonoa: 13 37 20

Itsaspe

Oraingoan Andutik Itsaspera jo degu. Bidean Orioko bista zoragarrienak dituen tulaietatik pasa gera. Baserria baino lehen autoa geratu behar izan degu, traktoreak bidea itxia zeukan.

Piskatean itxoin, bozina jo eta tximista baino azkarrago jeitsi da Luis Irastorza "Itsaspe" aldameneko pinuditik, anaia eta semea han utziz. Sasia garbitzen ari ziran. Zertara goazen adierazi eta Luisek gusto handiz erantzun dit egindako galderai, traktore gainean improbisatutako bulegoan.

IÑAKI ITURAIN

Luis 8 senideko familian seigarrena zan eta berak ere 8 seme-alaba izan ditu bere emazte azkoitiarrarekin.

Baserriaren izena "Itsaspe" berezko izena laburtearen ondorio omen da "Itsaspe". Horrela hitzen kontraesana argituta gelditzen da, baserria ez dago itsaspean haitzpean baizik. Orioko zaharrenetako omen da, hiru baserri besterik ez ziranean Itsaspe ba omen zan. Datu hauek D. Miguel Orioko bikarioa izandakoari aditu zizkion Luisek. Bizirik egon ezkerro orain 143 urte izango omen lituzkeen aitonari aditura daki Luisek Itxaspera baserria Orioko kartzela izanadela, XVIII. mendean edo. Nonbait zigor moduan eramatzen zuten gai-zkilea, bere familiarekin, Itxaspera bolada batean lanean jardutera. Ez zan sistema txarra, oraingo kartzelak baino egokiagoa bai behintzat! Geroztik soldaduen kuartela ere izan omen da.

Gaur egun berriz baserri

baserria da, zortzi behi, sei txala, esnea Gurelesak eramatzen du, beheko bideraino jeitsita. Baratza etxerako daukate, kanporako-eta ez. Eta pinudiak. Garai batean urdiak ere asko zeuzkaten, anaia ibiltzen zan, Aralarreta eta joosten. Baino "el año zinkuentainueben" pinuak aldatzen hasi ziran, gainontzean menda alferrik zeukatela pentsatuta. Erabaki horrek problema bat baino gehiago ekarri die geroztik.

Pinua maite ez duen jendea ere bada bazterretan eta errezena egin, pinudiari su eman, behin baino gehiagotan. Norbaitek kanpoko sugeak askatu ere bai, Luisek oraindik zertarako ulertzten ez badu ere. Baita horretan zebilen bat baino gehiago harrapatu ere. Istiluak.

Etorkizuna ez dio oso argia ikusten euskal baserriari, "produktuen prezioak orain dala hamar urtekoak dira, kostuak eta zergak berriz beti

goraka, horrela ezin da".

Luisi denbora gehiago kendu gabe pinudiko lanera itzultzen utzi eta baserriraldeko jo genuen. Baserriak bi parte ditu, 72an EAJ-k baserriaren hegaldetik erosia zuen militanteek bilerak eta egoaldiak egiteko. Leku ona aukeratu zuten horregatik!

Sukaldera ere ausartu ginen. Han emakumeak zeuden, hiru belaunaldi, amona, ama eta alaba, denak jo ta ke industria batentzako pieza metalikoekin lanean. Luisen hitza ezkorrak konfirmatu egiten zituen irudiak,

Han jakin degu 80an zeharo aldatu zutela Itsasperen itxura, obra eginda, eta baserri zaharretik ateratako egurrezko habeetan zenbaki errromatarra zeudela, beharbada baserriaren antzinatasunaz datu polita da.

Berriketaldi labur batetik ondoren, "nahi dezuen arte" bero bat entzunda herrira itzuli ginen, Luisek hamasei urtez sereno eta alguazil lana egiteko gauero egin behar izaten zuen bidea eginez.



Eskubian menda, ezkerrean itsasuna, goian eguzkia, paradesiak ez luke askoz gehiago behar

JAIOTAKOAK

Ander Atorrasagasti Aizpuru, urtarrilaren 4ean

Alexander Zubizarreta Aramendi, urtarrilaren 19an

Arantza Santos Galatas, urtarrilaren 27an

Ihintza-Ane Uranga Karrera, urtarrilaren 31n.

Leire Arriola Makazaga, otsailaren 2an

EZKONDUTAKOAK

Jose Luis Iturain Azpiroz eta Eva Diaz De Ilarraga Alvarez, otsailaren 5ean

Juan Antonio Erkizia Isasti eta Maite Uranga Azkue, otsailaren 19an

HILDAKOAK

Serafina Arrizabalaga Genova, urtarrilaren 1an, 77 urte

Manuel Zaldua De la Cruz, urtarrilaren 10ean, 38 urte

Maria Frantziska Peña Goikoetxea, urtarrilaren 15ean, 84 urte

Izaskun Loidi Iruretagoien, otsailaren 20an, 60 urte.

Milagros Lizaso Manterola, urtarrilaren 22an, 67 urte

HIZKI ZOPA

O	R	G	A	R	A	Z	I	E	I
J	A	R	O	T	Z	T	A	G	O
I	Ñ	(A)	U	N	B	I	N	A	E
A	N	D	R	E	A	I	D	R	L
T	Z	I	K	O	R	M	R	E	Z
J	R	O	R	U	Á	Ñ	I	H	A
X	D	E	I	I	R	E	U	N	R
A	E	N	A	N	D	O	N	I	U
B	K	R	L	I	K	O	Ñ	A	D
F	I	D	O	E	A	L	I	Ñ	N
A	M	E	N	R	E	I	S	A	A
E	R	R	A	I	A	N	I	R	L
B	A	I	M	A	L	I	A	G	U
E	T	E	I	N	O	J	E	R	I
Ñ	A	L	B	E	S	O	J	L	A

Orion, 1992 eta 1993. urteetan jaiotako umeen izenik ugarienak (5neska eta 5 mutil) aurkitu behar dira.

Zorionak**Emakumezko guztioi**

Besteentzat lanean aritu eta gero, politika-poliki, guretzat ere egiten hasiak garelako, luzea izango den bidean, benetako berdintasuna lortu arte

Zoriotxarrak**Oraindik ere euskara baztertzen dutenei**

Euskararen aldeko apostua gero eta nabarmenagoa denean, oraindik ere baten batzuek euskara alde batera uzten dute.

Adibide moduan, Orion banatutako egutegi batean, —bertako enpresa batek egina— frantsesa, ingelesa eta gaztelerak tokia duten arren, euskara ez da agertu ere egiten.

Txangurroa labean

(2 lagunentzat)

OSAGAIAK:

Pilar Etxezarreta
Katxiña jatetxea

- Txangurro bat
- Tipula bat
- Whiskya
- Tomatea 2 kutxarakada
- Olioia

NAIA EGIN:

Eltze batean ur gazia jarri eta bertara txangurroa bota. Segidan sutan jarri eta irakiten hasten den momentutik hamar minutura sua itzali, segituan atera eta ur hotzegan pasu. Txangurroa hoztutzean, guztia desmigatu. Paela batean tipula oliotan jarri, oso su txikian tipula egos dadin, eta ez doratzen utzi. Segidan, olio gehiena kendu eta whisky piska bat bota. Guztia

nahastu eta pare bat kutxarekada tomate ere gaineratu. Guzti hau batidoraz ondo nahastu.

Azkenik txangurroaren mamia eta saltsa bateratu, eta honekin txangurroa bete, ogi arrailatu piska bat bota gainera eta labean sartu, 200 gradutan ordu erdi bat inguru eduki gaina doratu arte.

KOMIKIA



Zinea Orion

"Aita, esmaidazu pagal!" To, seme, bost pezeta zinerako, eta beste bost aurreratzeko! Bai zera, aurreratzeko, nere artean... "pitagola eta erregaliza erosí, eta gero futbolinetara, lagunekin txapelketa on bat jokatzen". Eta bai aparatu onak Mari Karmenek bere "Salón Recreativos Oliden" gogoangarri hantzen zituen futbolin "mundial" haien. Ez dut ordutik holako aparatu finik ikusi inon ere: futbolari sendoak, jokaldi apartak egiteko bi hanka bizkor hajekin ...

Oroimen, pasadizo, lagunarteko borroka eta parte ugari datorkit burura. Batzutan erdi-karroza naizela ere pentsatzen dut ... Bost pezeta ziren, bai, bost, ordu pare bateko zine-saioa (Nodo-a barne) ikustea balio zuena.

Noski, orduko bost pezeta hajek oraingoak baino gehixeago ziren. Baino, merezizaten zuen ia paga osoa ordaintzea, astean behin Tarzan-Weissmuller-ekin lianetan ibiltzeko, El Zorro edo D'artagnan-i beren abenturetan laguntzeko, edo Sissi-Schneider-ekin seko maitemintzeko. Tira, batzutan sarrerak erosteko hiladan lekua hartzeko ordubete lehenago joan behar izaten zen, baina, Leunda Zineariohizko ziren haitako "estreno" haundi bat baldin bazen, mereziz zuen, noski.

Gaurko ume oriotarrek badute orain ere futbolinean aritzeko lekua, eta baita bere goxoki eta litxarreria erosteko dendia batzuk ere. Ez daudate, ordeu, geuk orain dela hamabost-hogeitzea izan genuen Txita-rekin jolasleko, eta Marx anaiekin algara batean parre egiteko aukera sano hura. Asko aldatu dira gauzak, zaharragoak gara, eta txikitako oroi menak buruan joan etorrian ibiltzea helduaroaren ezaugarria omen da. Paradoxa haundia da, alajaima, gaur egun diren aurrerapen harrigarriak izanda (ordenadoreak, telemandoak, bideoak, etabar), lehen hain gogoko eta inbento zoragarritzat genuen hura dagoeneko gure herriaren historia hutsa besterik ez izatea.

Uste dut oraingo umeek ez dituztela arkoak eta fletxak egiten eta erabiltzen, eta ez direla sagarrak lapurtzera mendira joaten, ... beharbada ez dute horrelakorik beharko, ... eta, zertarako denborapasak eta parreak eta ilusioak, zertarako zineak eta holakoak ...

Manu Etxeberria

—Kirola eta osasuna guztiontzat—

Gorputzaren ahalmen fisikoak

Nahiz eta beste artikulu batean gai hau aipatu genuen, gure gaurko solasaldian gorputzak dituen ahalmen fisikoez hitzegingo dugu. Osasunarekin ditugun erlazioak aztertuko ditugu.

Koordinazioa:

Gure gorputzaren atal guztiak armonikoki, egokiro eta zuzen mugitzerekin zerikusi handia du ahalmen honek, mugimenduren erregulazio eta kontrolaz mugatuta dago. Gure helburuarekin erlazionatuz, esan genezake, koordinazioak osasunarenengandik eragin txikia duela nahiz eta, askotan, gihar eta artikulazioen gaixotasunen baten ondorioz koordinazio eza sortzen den.

Abiadura: Gorputzak bere atalak azkar erabiltzea edo bere osotasuna azkar mugitzea izango litzateke abiaduraren definizioa; bere iraupena motza denez (esprint edo laisterketa motz baten iraupena gehienez minitu batekoa da), osasunarenengandik eragin eskasa izango du.

Malgutasuna:

Gorputzak bere mugi-

mendua artikulazioen zabalera guztian egiteko ahalmena da, eta, beste hitz batzuez defini daiteke, adibidez: biguntasuna eta flexibilitatea, Osasunarekin erlazio handia du eta horregatik, indarrarekin batera, artikulu oso bat eskeiniko diogu nola landu behar den ondo jakiteko.

Indarra: Denok dakigu pertsona indartsua zer den, baina, teknikoki esanda, indarra, gorputza mugitzeko edo abiadura aldatzeko behar den kapazitatea da. Indarrak ere osasunarenengandik eragin handia du, eta hurtenagoan luze hitz egingo dugu gai horri buruz.

Erresistentzia:

Hona hemen gorputzaren ahalmen guztietatik osasunarenengandik eragin handiena duen kualitatea. Erresistentziak gaixotasun kardiobaskular eta bere arriskuen faktoreengandik eragin positibo handia du. Ikerketa eta estudio askotan ikus daiteke, kualitate hau lantzen dugunean, kolesterola jeitsi egiten dela, odol ientsio mantendu eta, kasu batzuetan, txikitu egiten dela.

bihotzak bere lana hobetu egiten duela bere taupadak gutxituz, eta, miokardioaren irrigazioa handituz. Argi dago, baita ere, iraupen luzeko iharduera fisiko bat egiteko ohitura duten pertsonek bere pisua jeisten dutela, eta bere gorputzko gizenak, neurri batean, murriztu egiten direla. Buktatzeko, esan behar da, iraupen luzeko ariketak, ia beti, inguru libre batean egiten direnez, gure ingurunearekin harreman estuan jartzen gaituela, eta, horregatik, gaur egungo arazo handi bat, estresa, baretu egiten dutela.

Honaino ahalmen guztien definizio eta osasunarenengandik eraginak. Zehaztu nahiak, esan behar da, edozein kirolek ahalmen guztiak lantzen dituelia neurri ezberdinak, eta, horregatik, iharduera fisiko bat aukeratzerakoan, norberak atsegin edo gustoko duena aukeratu beharko duela, hau baita niretzat ariketak egiteko helburu nagusia "ONDO PASATZEA".

Rafa G. de Txabarri

Kale Nagusiko berrikuntza-lanak

Orioko Kale Nagusiak badu garrantzi historikoa. Alde batetik Donostiarik datorren Santiagoko bidearekin bat egiten du eta, bestetik, kale horren inguruan sortu den Orioko alde zaharra kultur ondasun gisa katalogatua dago.

AMAIA USANDIZAGA UDAL APAREJADOREA

Kale Nagusiko azken berrikuntza-lanak duela hamasei urte inguru egin ziren, buina, zoritzarrez, zoluaren egoera penagarria da gaur egun. Horretaz gain, saneamendua eta ur-hormiduraren sarea nahiko hondatuta daude eta Telefono-hariaren instalazioa aerea da zati askotan.

Udalak, hori guztia ikusita, Kale Nagusiarren urbanizazioari ekitea erabaki zuen. Urbanizazio-proiektuari iazko abenduko plenoan eman zion onarpena Udalak.

Proiektua Udal Arkitektoak egin du. Lanak bi fasean egingo dira: lehena Eusko Gudari kaletik hasi eta Iturbide kalerainto eta biga-

rrera, berriz, Iturbide kale-tik kasko zaharreko azken etxeraino.

Goikokalera plazatik igozko bidea ere nahiko itxita dagoenez (Julianitoren etxearen egiten ari diren obrak direla-eta), bigarren fasesa izango da lehenbizi egingo dena eta hori bukatutakoan ekingo zaio lehen faseari. Bigarren fasesko lanak hasita daude dagoeneko.

44 milioiko aurrekontua

Lehen fasearen aurrekontua 22.048.175 PTAko da eta bigarren fasearena, be-

rriz, 22.204.979 PTAko. Lanak otsailean hasi dira eta bost hilabeteko epea dute amaitzeko, San Pedroetako, beraz. Obrak egiteko Udalak Azpeitiako «Xaxarki SA» enpresa kontratatu du. Xaxarkiren egitekoahiru ataldean bana dezakegu:

Lur-mugimendua. Gaur egungo zolua altxa eta instalazio berriak sartzeko behar diren eskabazioak eta betelanak egingo dira.

Azpiegiturak. Ur-hormidurari dagokionez, tutu berri bat pasako da goitik behera, etxe bakoitzari hartunea emanez. Horretarako, atari aurrean kutxatila bat egingo da, pasoko giltza barruan izango duena.

Gaur egun euriurak eta ur fekalak denak nahasian jasaten dira. Egingo den saneamendu berrian bi tutu jarriko dira, bata euriurak jasotzeko eta bestea ur fekalera, nahiz eta, Eusko Gudari kalean gauza bera egiten den arte, bi ur-mota horiek arketa berean bilduko diren beheko konexioan.

Telefonikaren instalazioa ere lur azpitik egingo da eta, gainera, beste bi tutu ere sartuko dira etorkizunean sorlitzkeen beharretarako.

Obrak hasi direnean, ikusi da Iberdrolako instalazioaren tutuak oso azalean jarritza daudela eta, beraz, akordio batera iritsi da Udalak Iberdrolarekin instalazio berria egiteko.

Zolu berria. Eusko Gudari kaletik hazi eta zimitorioko sarreraren pareraino dagoenare-harrizko zolua ez da aldatuko, hau da, lanak egiteko kenizten den harri bera jarriko da berriz. Puntu horretatik gora materiala aldatu egingo da, nahiz eta oringo egitura mantendu. Horabiliko den materiala honakoa da: kare-harrizko harlausak espaloirako eta adokinak biderako. Horren oinarrian hormigoi armatua jarriko da. Oinezkoentzat egokiago izan dadin espaloi eta bidea altura berean egongo dira, koskarik gabe eta euriurak erdian jasoko dira.



ERRUSTA taberna

*Kriston
bokadillok!!*

Koasta Taberna

*Lasaitasuna
eta
giro ona*



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Azurza organooleari egindako omenaldian ateratako argazkia dugu oraingo hau. Esan beharko diguzue **lehenengo filan eserita daudenen izenak**.

Bigarren galdera: Zein urtetan destinatu zuten aita Lertxundi Marokora?

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean.

Afaria Itsas Ondo Jatetxearen izango da.

Erantzunak martxoaren 22rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:

KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

*Aurreko aleko irabazlea **Migel Illarramendi** izan da. Hau da eman beharreko erantzuna: Ana Rosa Iparragirre, M.Jesús eta Ana Belén G. de Txabarri, Belén Miralles, Marijo Oliden, Marian Manterola, Sorkunde Lizaso, Rosa Lertxundi, M. Luisa Oliden eta Bakartxo Urresti.*

Bigarren galderaren erantzuna: 37 bapore.

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariek



kaia kalea, 7
telfnoa: 13 11 79


euskaraz gazte



RAKEL DOMINGUEZ

14 urte

*EUSKALDUNA IZANIK,
EUSKARAZ HITZ EGIN BEHAR DUZU*



D. Bastos
1989